# app.hondarribia.eus

# 1. Sarrera

**app.hondarribia.eus** webgunea Hondarribiko Udalaren zerbitzu bat da, antolatzen diren jarduera ezberdinetan parte hartzeko (aurretiko izena-ematea egiteko) herritarrei eskainia.

Gune honetan jarduera ezberdinak publikatuko dira, epe konkretu batzuen artean.

Jarduera guzti hauek **hondarribia.eus** webgunean ere publikatuko dira (*Tramiteak* zein *Gaurkotasuna* ataletan), informazio modura, betiere plataforma honetara bideratuko zaituzte aurretiko izenemateak burutzeko.

Plataforma hau **https** protokolo ziurraren azpian eraikita dago, honek esan nahi du sartutako datu guztiak modu seguruan bidaiatuko dutela, hau da, zifratuta, hirugarren batek datu hauek eskuratzeko aukera eragotziz.

# 2. Home – Inskripzio gunea

Sarrerako orri honetan martxan dauden jarduerak azalduko dira.

Aurretiko izen-emate bat gauzatzeko aplikazioan sartu edo erregistratzea beharrezkoa da.

HONDARRIBIKO UDALA	
Jarduerak UDA Jolas	
Inskripzio gunea	
Ongietorri Hondarribiko Udalaren zerbitzura	
Une honetan martxan dauden jarduerak honak	bak dira:
UDA Jolas 5-11 urte bitarteko haurrentzat Udalekuak	
izen-emate bat gauzatzeko aplikazioan <b>sartu ec</b>	<b>lo erregistratzea</b> beharrezkoa da:
Erabiltzailea bazara.	Berria bázara.
Sarrera	Berria natz

## 3. Sarbidea-Erregistroa

Aurretiko izen-emate bat gauzatzeko aplikazioan erregistratua egotea beharrezkoa da. Hau behin bakarrik egin behar da, edozein jardueratan parte hartzeko. Behin erregistratua zaudela zure saioa hasi behar duzu.

## 3.1. Sarbidea

Erabiltzailea bazara hemendik sartu zaitezke.

Horretarako zure e-posta eta pasahitza besterik ez duzu behar.

## 3.1.1. Pasahitza berreskuratu

Zure pasahitza ahaztu baduzu *Sarbideko* formularioan "Nire pasahitza ahaztu dut" loturan klik egin behar duzu. Ondoren, agertzen den eremuan zure e-posta idatzi eta bertan jasoko duzu pasahitza.

⚠ Kontutan izan sartzen duzun e-postak erregistroa egin zenueneko bera izan behar duela.

## 3.2. Berria naiz

Erabiltzaile berria bazara e-posta eta pasahitza sartu behar dituzu erregistroa burutzeko.

Behin bete eta bidali ondoren mezu bat jasoko duzu zure e-postan, eta bertan dagoen loturan klikatu behar duzu kontua aktibatzeko. Hau egin gabe ezin da sisteman sartu.

## 3.3. Saioa amaitu

Behin zure eginkizunak bete dituzula saioa amaitzea komeni da. Horretarako goran eskubian gorriz dagoen "Saioa amaitu" botoia klikatu behar duzu.

hondarribia.eus				
Jarduerak UDA Jolas				
Sarbidea-Erregistroa				
Zure saioa hasi	Erabiltzaile berria?			
SARBIDEA	e-posta baldin baduzu, pasahitza eta minutu pare batekin aski duzu			
e-posta	ERREGISTROA			
pasahitza	e-posta pasahitza			
SARTU				
Nire pasahitza ahaztu dut	pasahitza berretsi			
Zure e-posta idatzi eta bertara bidaliko dizugu	BaldIntzak onartzen ditut			
zure e-posta hemen idatzi	Zure e-postan lotura bal jasoko duzu zure kontua aktibatzeko			
Pasahitza berreskuratu	Ez natz robota			
	DUDALL			

## 4. Jarduerak

Bai *Orri nagusian* zein *Jarduerak* atalean martxan dauden aktibitateak ikusiko dira, hala ere, goiko menuan beti egongo dira ikusgai.

## 4.1. Informazioa

Jarduera batean sartzerakoan aktibitate horri buruzko informazio guztia ikusiko duzu: arau orokorrak, ordutegiak, antolaketa, txandak, Izen-emate epea, zozketaren emaitzaren argitalpena (zozketarik balego), eta abar.

## 4.2. Aurretiko Izen-ematea

Izen-ematearen epearen barruan "Izen-ematea" botoia ikusiko da.

Botoi honetan klik egin ondoren jarduera horretan aurretiko izen-ematea gauzatzeko formulariora iritsiko zara.

▲ Zure lehenengo aldia bada, sistemak zure datu pertsonalak osatzeko eskatuko dizu, bestela ezin bait da izen-ematerik burutu. Kontutan izan erregistroan e-posta eta pasahitza besterik ez duzula sartu.

	₩ kaixo 🐂 EU ES
Jarduerak UDA Jotas	× Saioa amaitu
Jarduerak	
UDA Jolas	
5-11 urte bitarteko haurrentzat Udalekuak	
GARRANTZITSUA:	
Uda Jolasean plaza eskatzen dutenen gurasoek, egitarauak irauten duen egun g	juztietan parte hartzeko konpromisoa hartuko dute.
Izen-emate epea: 2017ko Otsailak 27tik 2017ko Apirilak tra	
izen-ematea	
ARAU OROKORRAK	
ADINA	
2000 eta 2012 une oltartean jaiotako naurrak (5-11 urtekoak) eta Hondarribian bizi direnak.	
ORDUTEGIA	
Astelehenetik ostiralera 9:30etatik 13:00etara	
LEKUA	
Tolaid L.H.I Bordari	
(Baserritar Etorbidea, 51)	

## 4.2.1. Izen-emate formularioa

Hasteko jardueraren "Txanda" aukeratu behar duzu.

Ondoren inskribatu behar duzun pertsonaren datuak bete behar dituzu (jardueraren arabera): izen-abizenak, jaioteguna, helbidea, eta abar.

Bukatzeko BIDALI botoia sakatu behar da.

▲ Zenbait jardueratan aurretiko izen-emateak *Taldeka* egitea baimentzen da (UDA Jolasen esaterako), anai-arreba bat baina gehiago talde berean inskribatu ahal izateko. Kasu honetan "Taldeka" aukeran kide kopurua aukeratu behar duzu izen-emate formularioa bete aurretik.

Jarduerak: UDA Jolas				* Saioa amaitu
Jarduerak				
5-11 urte bitarteko GARRANTZITSUA: Uda Jolasean piaza ( IZEN-EMATE/ Txanda 🖾 Uztallak	haurrentzał Udalekuak eskatzen dutenen gurasoek, e A 3-28 •	gitarauak irauten duen egun g	juztietan parte hartzeko k	konpromisoa hartuko dute.
Izen-emate honetan	anai-arreba bat baina gehiago	talde berean inskribatu nahi	badituzu, kide kopurua ai	ukeratu
Taldeka: Ez (1) 🔹				
Izena:	Lehen Abizena:	Bigarren Abizena:	Jaioteguna:	Eskola
	Lehen Abizena	Bigarren Abizena	Jaioteguna	Eskola
Izena	Docta Kodoa:	Udalemia:	Oharrak	
Izena Helbidea	r word riverout		Oberrek	
Izena Helbidea Helbidea	Posta Kodea	Udatema		

# 5. Erabiltzaileak

Erabiltzailea bazara eta saioa hasi baduzu "Kaixo *zure izena*" jarriko du goran eskubian (hizkuntzen menuaren ondoan).

Hemen klik eginez gero zure datu guztiak ikusiko dituzu, baita gauzatu dituzun aurretiko izenemateak eta hauen datuak edo eta egoera (onartua, ez onartua edo ordezkoa).

## 5.1. Zure datuak

Pantaila honetan zure datuak ikusiko dituzu: e-posta, pasahitza, NAN, telefonoa, izena, abizenak... *Pasahitza* eta t*elefonoa* kenduta gainontzeko datuak ezin dituzu aldatu.

Zuzenketak egiteko dagokion e-postara zuzendu beharko zara, jardueraren arabera (udala, gazte informazio bulegoa...).

## 5.2. Zure Izen-emateak

Zure aurretiko izen-emate guztiak hemen ikusiko dituzu (jarduera ezberdinetakoak), eta bakoitzean klikatuz betetako datuak zabalduko dira, informazio modura. Datu hauek ezin dituzu aldatu.

Zuzenketak egiteko dagokion e-postara zuzendu beharko zara, jardueraren arabera (udala, gazte informazio bulegoa...).

Zozketarik balego (udalekuetan esaterako), zozketaren kodea (zenbakia) eta egoera (onartua, ez onartua edo ordezkoa) hemen ikusi ahal izango duzu.

▲ Behin betiko izen-emateak gauzatzeko, zozketaren ondoren plaza lortu dutenek ohiko postaz jasoko dute bete beharreko dokumentazioa.

Jarduerak			
UDA Jolas			× Saioa amaitu
Erabiltzaile	ak		
kaixo			
e-posta:	pasahitza:		
In the part of the			
NAN	Telefonoa:		
margine and	for a market of a		
Izena:	Lehen Abizena:	Bigarren Abizena	
Miller	Contra	- Secondar	
Zure pasahitza aldatu	i nahi dezu?		
GORDE			
ALC: NOT COLOR			
Zure Izen-ema	ateak		
170241	- UDA Jolas	Iztailak 3.28	Onartua
	— UUA, Jolas → Uztallak 3-28		Charten a